# EUSKAL JAIAK HERNANIN, 1909



Alkartu gara
euskaldunak
Ernani'n.

Ederki aurrera!

Hernaniko Udala

Hernaniko Udala
Udal Artxibo Zerbitzua - Kultura Saila
2009ko iraila

# EUSKAL JAIAK HERNANIN, 1909

## Alkartu gera euskaldunak Ernani´n. Ederki aurrera!

1909ko irailaren 18tik 22ra, Euskal Jaiak antolatu ziren Hernanin. Antton Abbadiak (Dublin, 1810 - Paris, 1897) 1853an sortutako ekimen horrek euskaldunen kultura eta ohiturak sustatzea zuen helburu.

Esan bezala, Antton Abbadia mezenas euskaldunari esker, XIX. mendearen erdialdean, 1853an, Euskal Jaiak Urruñan egin ziren lehen aldiz eta, ondoren, Ipar Euskal Herriko beste hainbat herritara zabaldu ziren (Sara, Donapaleu, Maule, etab.). Horren harira, Unamuno Saiakera Saria jaso zuen Patri Urkizuk (*Antton Abbadia 1810 - 1897. Zerüko izarren bidia*) esan zuen Antton Abbadiarengatik izan ez balitz, euskara gaur egun jada galduta egongo litzatekeela Iparraldean.

Abbadiaren espiritua eta pasioa Euskal Herriko gainerako lurralde eta instituzioetara hedatu eta zabaldu ziren. Nafarroan, Nafarroako Euskara Elkartearen eskutik; Bizkaian, Euskal-Herria Zentroa... Donostian, Euskal Jaien sustatzailea Donostia Euskal Jostaldien Batzarra izan zen.

Donostiarrek musika eta literatura lehiaketak eta saioak antolatzen zituzten, eta Gipuzkoako Aldundiak ospakizunak ganadu txapelketekin osatzea erabaki zuen. Horrez gain, lurraldeko hainbat herritara zabaldu zituen: Arrasate, Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati, Irun, Ordizia, Bergara, Donostia, Elgoibar, Eibar eta, 1909an, Hernanira.



**1909ko irailaren 18tik 22ra Hernanin izan ziren EUSKAL JAIEN KRONIKA.**

Ospakizunak irailaren 18an, larunbatean, hasi ziren arren, bezperan, irailaren **17an**, giroa nabaria izan zen egun osoan zehar; orduantxe ireki baitzen Gipuzkoako Diputazioak antolatutako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lehiaketako "azoka esparrua", abereak, lanabesak, nekazaritzako makineria eta abar hartuko zituena.

*Herrira sartu bezain laster... mastak, banderak, arkuak, banderatxoak eta abar ikus zitezkeen nonahi... Kale Nagusia eta Urumea Kalea banderatxoz eta arkuz josita zeuden espaloi batetik bestera. Plaza Nagusian... tribuna bat zegoen Diputazioarentzat eta epaimahaientzat, eta haren parean... oholtza; Hernani osoa zegoen apainduta eta... giro alaiari esker... inoiz baino dotoreago.*

**IRAILAREN 18an, LARUNBATEAN,** goizean goiz, lehiaketan parte hartu behar zuten nekazaritza produktuak eta behiak ez beste animaliak iritsi ziren azokara. Ondoren, lehiaketa hasi zen.

***Arratsaldeko lautan,*** *Plaza Nagusian bilduta... Hernaniko Udal Banda..., dultzaineroak... eta danbolin-joleak zeuden, segizioa Diputazioko ordezkariekin elkartzeko Udaletxetik noiz aterako zain... Handik gutxira, segizioa abiatu zen. Honakoek osatzen zuten: Udalbatzak, Joaquin Arbelaiz alkatea buruan, eta herriko bandera zeramala, Manuel Zubillaga sindikoak. Bertan ziren, halaber, Hernaniko Bikarioa, Alfonso Maria Zabala, eta beste batzuk...*

*Segizioa, Kale Nagusi osoan barrena ibili ondoren, herriko sarreran dagoen arkuan geratu zen,... lirain eta dotorea, banderaz eta*



*banderatxoz apainduta, honakoa irakur zitekeen bertan:* ***Probinziako Diputazio argiya. Ernani-ko erri ezagugarri ta leyal ontara. Ongi betorkigu.***

Hantxe geratu zen Diputazioko ordezkarien zain, Joaquin Carrion presidentea buruan zela. **Arratsaldeko bostetan** iritsi ziren.

Haiekin batera, Lore Jokoen ordezkariak zeuden: Alfredo Laffitte presidentea, Toribio Alzaga idazkaria eta Miguel Salaberria eta Jose Zapirain jaunak. *Ospe handiz* hartu zituzten... Musika Bandak eta udal eskoletako haurrek *Gernikako Arbola* jo eta abesten zuten bitartean.

Ohiko agurren ondoren, segizioak Udaletxera jo zuen, aurretik Udal Banda, *makildantzariak*, dultzaineroak eta danbolin-joleak zituela. Bertara iritsi zenean, Plaza Nagusiko oholtzan, udal eskoletako haurrek, Musika Bandaren laguntzaz, *Ongi-Etorri* abestu zuten.

Udaletxean atseden laburra hartu ondoren, segizioa azokara hurbildu zen; *lehiaketa ikusteko sarrera irekia zenez, jendez gainezka zegoen. Jende guztiaren ahotan zebilen instalazioa*, bertan parte hartu baitzuen Donostiako zabalgunearen egilea zen Kortazar arkitektoak *eta baita aurkeztutako produktu eta abereak ere.*

**Sei eta erdietan**, Parrokia-elizan, Udaleko eta Diputazioko agintariak bertan zirela, Donostiako Orfeoiak Eslava maisuaren *Solemnisima* ***SALVE*** ereserkia abestu zuen izugarrizko jendetzaren aurrean. Ondoren, Hernaniko bikarioaren hitzak eta Manuel Zendoia organo-jotzaileak musikatutako ***HIMNO A LA VIRGEN*** *kantatu zuen.*

*Eliza bikain argiztatuta zegoen... itxura ederra zuen,...*



Eta eliza ez ezik, *herri guztia ere*, bertatik atera zirenean herritarrek egiaztatu zutenez: Ezkiaga pasealekuak oso argi ederrak zituen, herriko kale nagusietan *veneziar erako* farolak ipinita. Aipatzekoa da Ubarretxena Anaiek Udaletxea argiztatzeko egin zuten lan aparta.

*Zoragarria* zen,... baita kaleetako eta plazetako giroa ere.

***Zortzi eta erdietan,*** **DANTZATZEKO MUSIKA** jo zuten Udal Bandak, danbolin-joleek eta dultzaineroek, jendez mukuru zegoen **Ezkiaga pasealekuan**. Ondoren, **SU ARTIFIZIAL** ikusgarriak izan ziren.

Ordu berean, ***zortzi eta erdietan***, *ezin hobe argiztatu* eta apaindutako Udaletxeko Bilkura Aretoan, Euskal Lore Jokoen ordezkariek antolatutako ***MUSIKA ETA LITERATURAKO GAU EMANALDIA hasi zen.***

Aurrena, Euskal Lore Jokoen idazkari Toribio Alzagak literatura, musika eta pintura lehiaketaren akta irakurri zuen *euskaraz*.

Jarraian, Euskal Lore Jokoen presidenteak, Alfredo Laffittek, aurkezpen hitzaldia eman zuen. Hernaniko hiribilduaren jatorriari eta historiari buruz hitz egin zuen; baita euskaldunen izaerari buruz ere; euskaldunen zintzotasunaz, prestutasunaz, etab., eta emakumeak Euskal Herriko bizitza sozialean zuen nagusitasunaz.

Euskal literaturari buruz esan zuen ia ordura arte ez zela existitu euskal literatura gisa eta euskaraz idatzitako liburu zahar bakarrak liburu jainkotiarrak eta aszetika tratatuak zirela.

Halaber, esan zuen Euskal literaturaren jatorria Manterolaren Euskal Kantutegian zegoela, eta Lore Jokoek, Euskal Herriko literaturaren aldeko instituzio bakarrak, euskal idazle eta musi-







kariak sortzea zuela xede.

Era berean, nabarmendu zuen *euskal antzerkigintzak*, mugatuta egon arren, pauso handiak eman zituela, batez ere drama liriko-historikoaren generoan: *Chaton Piperri, Anboto, Artzaik mutillak, Iparragirre eta Maitena.*

Amaitzeko, esan zuen horrek frogatzen zuela *hizkuntza bat duen gurea bezalako herri batek mendetan zehar luzaroan iraungo duela.*

Jarraian, Mortara apaizak hitz egin zuen: *Euskararen idiosinkrasia eta ezaugarriak, eta beste herri batzuei buruzko erreferentzia etimologikoak.*

*Euskaraz* emandako hitzaldian, gure hizkuntza goraipatu zuen, eta gaitzetsi zuen *euskaldun askoren jarrera euskara ukatu eta zokoratzen dutelako*, eta eskatu zuen *euskaldun zintzoek duten hizkuntza erabiltzeko.* Azkenik, Diputazio Probintzialari eskatu zion *euskara plazaratzeko, zabaltzeko eta aberasteko beharrezkoa zen guztia egiteko.*

Jarraian, Toribio Alzaga idazkariak, lehiaketaren saria jaso zuen Ramon Inzagaray apaizaren *Artzaya, bego mendiyan* poesia irakurri zuen.

Ondoren, Donostiako Orfeoi ospetsuak Resurreccion Maria de Azkueren *Nere aberriko loreak*, Olaizolaren bertsio laburragoan, eta Santesteban maisuaren *Nere andrea* kantatu zituen.

Gero, Jauregi apaizak hitza hartu eta hitzaldi bat eman zuen *euskaraz*. Kardaberazen bizitzaren eta idatzien berri eman zuen, eta Hernaniko semerik nabarmenetako bat zela esan eta haren esaldi bat gogorarazi zuen: *Dios quiera que el euzkera levante su postrada cabeza.*



Kardaberazek *euskaraz* idatzi zituen lanen izenburuak aipatu zituen; eta euskara defendatu zuen... *gure hizkuntza soilik jende pobre eta xumearen ondare ez izatearen alde* agertu zen.

Jarraian, Juan Ignacio Uranga jaunak lehiaketatik kanpo ohorezko aipamena jaso zuen *Eralora edo Uda berriya* izeneko poesia irakurri zuen.

Ondoren, Adrian Loyarte jaunak, tribunatik, hitzaldi luze eta dokumentatu bat eman zuen: *El genio basco, especialmente en la civilización ultramarina.* Bertan aipatu zituen *Ameriketan Euskal Herriko historiaren zati txiki bat* osatu zuten euskaldun ospetsu guztien eta haien semeen izenak: Legazpi, Juan Garay,...

Eta hauxe galdetu zuen: Euskal Herria *bertan jaiotako abenturazale bakar batzuei esker Historian nabarmentzeko gai izan bada, zer ez luke egingo zientzien, letren eta politikaren arloan? Gerrazaleak eta konkistatzaileak baino ez ditugula sortu leporatzen digute; baina kontuan hartu behar da, garai hartan, borroken eta gerren artean bizi zirela; eta penintsula osoa zela gerrazalea.*

Ondoren, literatura, musika eta pintura lehiaketaren sariak banatu ziren, eta, amaitzeko, Donostiako Orfeoiak Busca maisuaren *Ausencias y anhelos eta Gernikako Arbola* abestu zituen.

Horrela bukatu zen lehen jaieguna.

**IRAILAREN 19an, IGANDEAN,** ***goizeko bost eta erdietan,*** DIANA eta kalejira *alaiak* izan ziren, danbolin-joleen eskutik. Ondoren, ***sei eta erdietan, DANBORRADA***, Udal Bandarekin.

***Bederatzietan***, **NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO**



**LEHIAKETAN** aurkeztutako abere, lanabes eta produktuen erakusketa zabaldu zen arratsaldeko bostak arte. Erakusketa ireki eta gutxira, atal bakoitzari emandako sarien berri eman zuten epaimahaiek.

***Bederatzi eta erdietan***, Udaletxetik abiatu zen segizio ofiziala, Diputazioa eta Udala, parrokia-elizara. Betiko moduan, ***PROZESIOA*** *a la antigua usanza floral* elizatik irten eta Urumea Kalean, *Cinco Cantonesetan* eta Kale Nagusian barrena ibili zen. Aurrean makildantzariak zihoazen, eta atzetik, San Ignacio Loiolakoaren eta Sortzez Garbiaren irudiak, mikeleteek lagunduta. Ondoren, Kleroa, Cadena y Eleta Elizbarrutiko Apezpikua buruan; Diputazioa, Carrion jauna buruan; eta Hernaniko Udala, Joaquin Arbelaiz alkatea buruan. Azkenik, Udal Banda eta fededun ugari.

Elizara itzuli ondoren, ***MEZA NAGUSIA*** hasi zen, Elizbarrutiko Apezpikuaren eskutik.

Ezin hobe argiztatutako eliza txiki geratu zen, eta fededun askok ataritik jarraitu behar izan zuten meza.

Otoitz sakratuaz Jesus Maria Etxeberria Doktorea arduratu zen. Sermoia euskaraz eman zuen, eta Euskal Herriaren handitasuna goraipatu zuen. Horrez gain, Euskal Herriko printzipio sozial eta politikoak aztertu zituen, eta foru erregimenaren apologia sutsua egin zuen, *onena eta justuena* zela esan baitzuen.

Euskal Herriko ohiturak goraipatu zituen, eta *Historian nabarmenarazi duten printzipio nagusietan oinarritzeko* eskatu zuen.

Bien bitartean, Donostiako Orfeoiak Gounoden *Meza* kantatu zuen; eta ofertorioan, Usandizagaren *Ave Maria*, eta bukatzeko, *Himno a la Virgen ereserkia.*







Meza Nagusiaren ondoren, Plaza Nagusiko oholtzan, ***DANTZARI TXIKIEN*** konpartsak bertako hainbat dantza eskaini zituen.

**DONOSTIAKO ORFEOIAK**, eguerdian, *Plaza Nagusia jendez gainezka zegoela, Ausencias y anhelos, Boga-boga eta Gernikako Arbola* abestu zituen.

***Arratsaldeko ordu batean BANKETE OFIZIALARI*** hasiera eman zitzaion Udaletxeko Bilkura Aretoan. Bertan izan ziren, besteak beste, Diputazioko presidente Joaquin Carrion jauna, Hernaniko alkate Joaquin Arbelaiz,... diputatu probintzialak eta Hernaniko zinegotziak, Lore Jokoen ordezkariak, Hernaniko bikarioa eta Jesus Maria Etxeberria sermoilaria.

*Eguraldia alde izan zuten Euskal Jaiek: larunbata egun polita izan bazen, igandean giroa aparta izan zen, ezin hobea, udakoa. Hori dela-eta, goizeko lehen ordutik, jende andana etorri zen Hernanira. Batez ere arratsaldean. Auto, gurdi, tren eta tranbia ugari etorri ziren maila sozial guztietako jendez beteta, eta ondorioz, sekulako giroa zegoen herrian.*

***Arratsaldeko ordu bietan***, banketea amaitu ondoren, sariak jaso zituzten Plaza Nagusian Eibarko Euskal Jaietan antolatu zen lehiaketako erakusketariek.

*...jada ezinezkoa zen pauso bakar bat ere ematea Plaza Nagusitik Azokara; eta ordutik aurrera, zalaparta eta giroa sekulakoak izan ziren leku guztietan.*

***Hiruretan***, **NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO LEHIAKETA** zabaldu, eta sariak banatu ziren.

**Bostetan**, saritutako animaliek desfilatu zuten Plaza Nagusitik.

Orduan, istripu bat izan zen, baina, zorionez, ez zen larria izan



eta ez zituen Euskal Jaiak ilundu. Plaza Nagusiko oholtzara jende ugari igo zen ospakizunak ikusteko, eta, pisuarengatik edo..., erori egin zen. Ez zen aipatzeko moduko ezertxo ere gertatu, eta laster desfileak jarraitu zuen.

Gero, plazan bertan, ***OHOREZKO AURRESKUA*** izan zen.

**Bost eta erdietan**, Udal Bandak **DANTZATZEKO MUSIKA** jo zuen Ezkiaga Pasealekuko kioskoan.

***Seietan, BERTSOLARIEN*** lehen emanaldia hasi zen jendez gainezka zegoen Plaza Nagusian. Lehen emanaldi horretan eta ondorengoetan parte hartu zuten Zizurkilgo Pello Errotak, Hernaniko Jose Manuel Lokendiok eta Txirritak eta Usurbilgo Bautista Gazteluk.

*Giroak bere horretan jarraitu zuen iluntzean, kanpotik etorritako jende asko etxera itzuli arren.*

***Zortzi eta erdietan***, Ezkiaga pasealekuan, ***GAU FESTA*** handia hasi zen, danbolin-joleek eta Udal Bandak girotuta.

Beranduxeago, ***hamaiketan***, Santa Barbara mendian, ***SU ARTIFIZIALAK*** izan ziren, ***SUMENDI*** harrigarri batekin amaitu zirenak.

Amaitzeko, Udal Banda Plaza Nagusira abiatu zen **KALEJIRAN** eta ***ARIN-ARIN*** alaia jo zuen.

**IRAILAREN 20an, ASTELEHENEAN,** ***goizeko zazpietan***, danbolin-joleak eta Udal Banda ***KALEJIRAN*** ibili ziren herriko kaletatik barrena.

***Hamarretan***, Plaza Nagusian, Lore Jokoen ordezkariek antola-



tutako ***DANBOLIN-JOLEEN TXAPELKETA*** izan zen. Bertan parte hartu zuten Tolosako eta Zumarragako danbolin-joleek eta Txapelketatik kanpo zegoen Zumaiako danbolin-jole batek. *Guztiek jaso zuten txalo zaparrada handia.*

Txapelketa bukatu ondoren, jendetza Ezkiaga Pasealekura joan zen, ***hamaika eta erdietan*** hasi beharreko Udal Bandaren **KONTZERTUA** ikusteko. Estanislao Gorrotxategiren zuzendaritzapean, *Bohemios* (Vives), *Sinfonía Vasca* (Mokoroa), *Los Euskaros* (Torre-Muskiz) eta *La Viuda alegre* (Lehar) jo zituen Bandak.

***Ordu bietatik*** *aurrera, giroa berotuz joan zen... Kanpotar asko etorri ziren Donostiatik eta probintziako beste hainbat herritatik; kaleak eta plazak, kafetegiak eta elkarteak, eta gainerako establezimendu publikoak jendez bete ziren.*

***Arratsaldeko lauretan, SAGARDOGINTZARI*** buruzko konpartsa atera zen; hainbat karroza ibili ziren herrian zehar, Hernani ospetsu egin duen sagardoaren fabrikazioan eman beharreko pausoak erakutsiz. *Sekulako giroa zegoen Plaza Nagusian.*

Cinco Cantones eta Kale Nagusia igaro eta Plazaraino iritsi zen eta, ondoren, Urumea kaletik itzuli zen.

Konpartsan parte hartu zuten gizonek, emakumeek eta haurrek; guztiak modu berezian jantzita.

Bertan ziren, halaber, danbolin-joleak eta zaldun bat, eta atzetik, hainbat sagar mota irudikatzen zituzten umeak. Ondoren, sagarrondoaren landaketa eta inausketa irudikatzen zuen karroza zetorren. Atzetik, beste bat zegoen, sagarra nola biltzen zen erakusten zuena. Hurrengo karrozan, sagardoa zapaltzeko arduradunak zeuden. Gero, gurditxo bat, kupel batekin eta pitxer batzuekin. Azkenik, karrozarik *artistikoena* eta *ikusgarriena* zegoen:







sagardotegi bat. Sarreran, zenbait *zizarrista* bilduta, besteak beste, *Eltzekondo*, *Txirrita*, Jose Miguel Oiartzabal *Negiya*,... mokadu bat jaten eta sagardo pitxer batzuk edaten.

Udal Bandak ospakizuna alaitzen zuen.

Ondoren, ***MAKILDANTZARIEN*** konpartsak euskal dantza batzuk eskaini zituen Plaza Nagusian.

***Zortzi eta erdietan, MUSIKA BANDAK ETA DANBOLIN-JOLEEK*** Ezkiaga pasealekua girotu zuten. Ordu berean, Udaletxeko aretoan, ***GAU EMANALDI DRAMATIKOA*** hasi zen.

Bertan, ***INGELESAren EURITAKUA*** Jose Olaizolaren jatorrizko komediaren estreinaldia eta ***ZORIGAIZTOKO EGUNA*** zarzuela, Avelino Barriolaren hitzekin eta Jose Olaizolaren musikarekin, antzeztu ziren. Atsedenaldietako batean, txalo asko jaso zituen bakarrizketa bat aurkeztu zen.

Eta horrelaxe bukatu zen eguna.

***IRAILAREN 21ean, ASTEARTEAN,*** **goizeko zazpietan, DIANA ETA KALEJIRA** danbolin-joleen eta Udal Bandaren eskutik.

***Hamarretan***, Biteri Eskolen lokaletan **EUSKARAZ IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO ARIKETAK** hasi ziren... *dudarik gabe, Euskal Jaien egitaraua osatzen zuten jarduerarik erakargarrienetakoa*. Ariketa horietan parte hartu zuten hamabost haurrek eta denek jaso zituzten sariak. Hona hemen sarituak: Martina Zubillaga eta Jose Telletxea; Karmen Imaz, Leonor Zubillaga, Maria Iraola, Miguel Toledo eta Federico Armendariz; eta Fernanda Alberro, Juanita Landaberea, Eloisa Urnieta, Maria Navarro, Jose Luis Miner, Jose Agustin Esnal eta Ramon



Zumalakarregi.

***Hamaika eta erdietan,*** Ezkiaga pasealekuan, **KONTZERTUA**, Udal Bandaren eskutik: *Puñao de rosas* (Chapí), *Ecos de Vasconia* (Mokoroa), *Nabucodonosor* (Verdi) eta *Navarra* (Brull).

***Arratsaldeko lauretan***, Plaza Nagusian, ***EUSKAL JAI*** tipikoa izan zen, besteak beste, korrikalarien, aurreskularien, irrintzilarien eta zulladunen txapelketarekin.

**Korrikalariei** dagokienez, sei lehiakidek parte hartu zuten; haien artean, Julian Gotillak eta Juan Garciak, eta Ignacio Ibargurenek eta Tiburcio Loinazek.

**Aurreskulariak** bi taldetan banatu ziren; bata 16 urtetik beherakoa eta bestea 16 urtetik gorakoa. 16 urtetik beherakoen artean zeuden Leoncio Arbelaiz, Antonio Ubarretxena eta Juan Pujana. Eta 16 urtetik gorakoen artean, berriz, Manuel Txapategi (Zarautz) eta Jose Maria Lasa (Beasain), Antolin Zubizarreta (Placencia) eta Justo Pujana (Hernani), eta Alejandro Fernandez (Andoain).

Bi **irrintzilari** aurkeztu ziren, hain zuzen ere, Jose Matxain (Usurbil) eta Francisco Mitxelena hernaniarra. Lehiaketatik kanpo: Eduardo Toledo.

Hiru zulladun hauek aurkeztu ziren: Maria Lasa, Katalina Larburu eta Maria Irazusta.

*Plaza Nagusian pilatutako jendeak ederki gozatu zuen txapelketarekin.*

Ondoren, **HAURREN AURRESKUA** hasi zen; haurrek Justo Pujana maisuak irakatsitakoa erakutsi zuten, eta bukatutakoan, Udaletxera joan ziren ardoak eta pastak dastatzera.



Aurreskuaz arduratu zen Leoncio Arbelaitz, eta autzeskuaz, berriz, Antonio Ubarretxena. Halaber, parte hartu zuten Ramon Zumalakarregik, Ignacio Mujikak, Joaquin Garmendiak eta Domingo Orbegozok. Eta ilara osatu zuten Agustin Ubarretxenak, Luis Atxukarrok, Kandido Urdangarinek, Isidro Salaberriak, Domingo Mujikak, Manuel Alberrok, Juan Olaizolak eta Simon Zorazabalek. Eta baita Maria Zubillagak, Dolores Elizaranek, Concepcion Alberrok, Juana Landabereak, Emma Irazustak, Presentacion Gaztaminzak, Feliciana Pagolak, Fernanda Alberrok, Eloisa Urnietak, Ramonita Sarasketak, Angelita Zarauzek eta Isidra Zapirainek.

***Seietan,*** **BERTSOLARIEN** bigarren emanaldia hasi zen Plaza Nagusian. Pello Errota ez zen azaldu, eta Olegario Garinek ordezkatu zuen.

***Zortzi eta erdietan,*** Udal Bandak eta danbolin-joleek, dultzaineroekin txandakatuz, **DANTZATZEKO MUSIKA** jo zuten Ezkiaga pasealekuko kioskoan. *Pasealekua jendez gainezka zegoen.*

Ordu berean, bigarren eta azken **ANTZERKI GAU EMANALDIA** Udaletxean. ***MEZA BERRIYA*** Avelino Barriolaren jatorrizko sainetea eta ***ATERAKO-GERA*** Toribio Alzagarena antzeztu ziren. Azkenik, ***ZORIGAIZTOKO EGUNA*** zarzuelaren bigarren antzezpena.

Atsedenaldietako batean bakarrizketa bat antzeztu zen.

***Hamaiketan,*** **KALEJIRA** Udal Bandaren eskutik, eta Plaza Nagusian, ***ZEZEN-SUZKOA.***

**IRAILAREN 22an** festak jarraitu zuen. ***Goizeko bederatzi eta erdietan,*** **PULTSOLARIEN** proba ospatu zen. Aurrena, Nikolas Otaño eta Ignacio Egibar hernaniarrak borrokatu ziren. Ondoren,



Isidoro Ollokiegi *Eltzekondo* oholtzara igo eta berarekin lehiatzeko desafioa bota zuen; ez zen lehiakiderik agertu.

Pultsolarien proba amaitu ondoren, **MAKILDANTZARIAK** igo ziren dantzatzera.

Jarraian, **MUSIKA** Udal Bandaren eskutik Ezkiaga pasealekuan.

***Arratsaldeko ordu bi eta erdietan,*** *Telleri Gainen,* **BLANKOLARIEN LEHIAKETA** hasi zen. 37 tiratzailek hartu zuten parte. Honakoak nabarmendu ziren: Juan Zapirain, Recalde baserrikoa (Astigarraga), Kornelio Arrieta, Ergobikoa, eta Jose Maria Erdozio.

Blankolarien lehiaketa amaituta, *jendez gainezka* zegoen Plaza Nagusian *-jende asko etorri zen tren, tranbia, gurdi eta autotan-* **AHARI PROBA** izan zen. Bi lehiakide aurkeztu ziren; bata Usurbilgoa eta bestea Donostiakoa. Usurbilgoak irabazi zuen proba.

Eta ondoren, **MAKILDANTZARIEK** aurreskua dantzatu zuten. Jarraian, **BERTSOLARIEN** hirugarren eta azken emanaldia.

Jaien amaiera duina izan zen. ***Bederatzietan***, **DANTZARI-TXIKIEN** konpartsak hamalau dantza eskaini zituen. Eta, azkenik, Ezkiaga pasealekuan, Udal Bandak, dultzaineroak eta danbolinjoleek **DANTZATZEKO MUSIKA** jo zuten.
















# EUSKAL JAIAK HERNANIN, 1909

## Alkartu gera euskaldunak Ernani´n. Ederki aurrera!

Entre el 18 y 22 de septiembre de 1909 se celebraron en Hernani las Fiestas Euskaras, iniciativa nacida en 1853, de la mano de Antton Abbadia (Dublín, 1810-París, 1897) con el objeto de dinamizar la cultura y costumbres euskaldunes.

El mecenas euskaldun Antton Abbadia, como decíamos, fue quien a mediados del siglo XIX, en 1853, dio inicio a la celebración de las *Fiestas euskaras*, en Urruña, para después llevarlas a otras diversas localidades de Ipar Euskal Herria (Sara, Donapaleu, Maule, etc.). En este sentido, traer hasta aquí las palabras del Premio Unamuno de Ensayo, Patri Urkizu *(Antton Abbadia 1810-1897. Zerüko izarren bidia),* quien afirmaba que si no hubiera sido por Antton Abbadia el euskara hoy, ya, se habría perdido en Iparralde.

El espíritu y la pasión de Abbadia se expandieron y difundieron a los restantes territorios e instituciones de Euskal Herria. En Nafarroa de la mano de la Asociación Euskara de Navarra, el centro Euskal-Herria en Bizkaia... En Donostia, el promotor de las fiestas euskaras fue la Asamblea Donostia Euskal Jostaldien Batzarrea.

Los donostiarras organizaban concursos y certámenes literarios y musicales, y la Diputación provincial decidió complementar los festejos con concursos de ganado. Además, las llevaría a la provincia: Arrasate, Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati, Irun, Ordizia, Bergara, Donostia, Elgoibar, Eibar y en 1909 Hernani.





**CRÓNICA de la FIESTAS EUSKARAS celebradas entre el 18 y 22 de septiembre de 1909, en Hernani.**

Si bien los festejos propiamente dichos, dieron comienzo el sábado 18 de septiembre, la víspera, el **DÍA 17**, durante todo el día, con la apertura del "recinto ferial" a la recepción de ganado, utensilios, maquinaria agrícola, etc. que tomaron parte en el Concurso de Agricultura y Ganadería organizado por la Diputación de Guipúzcoa, el ambiente fue palpándose en la localidad.

*Desde que se entra en el pueblo... todos son mástiles, gallardetes, arcos de follaje, banderolas, etc., etc. ..., las calles Mayor y Urumea aparecen cuajadas de banderolas y arcos que se tienden de una a otra acera. En la Plaza Mayor... una tribuna para la Diputación y los Jurados, y frente a ella... un tablado...; todo Hernani aparecía engalanado, y... unido a la extraordinaria animación... hacían que la villa ofreciera un aspecto hermosísimo.*

A primera hora de la mañana del **SÁBADO DÍA 18**, llegaron al recinto ferial los productos agrícolas y animales de especie distinta a la vacuna que eran de tomar parte en el concurso. Después, éste daría comienzo.

*A las cuatro de la tarde se hallaban congregados en la Plaza Mayor, la... Banda municipal de Hernani..., los dulzaineros... y los tamborileros, en espera de que de la Casa Consistorial saliese la comitiva que había de acudir a recibir a los representantes de la Diputación...* Poco después se puso en marcha. La formaban: *el Ayuntamiento en corporación, presidido por el alcalde D. Joaquín Arbelaiz; portaba la bandera de la villa,... el Síndico D. Manuel Zubillaga. Además figuraban... el Vicario de Hernani, D. Alfonso María de Zabala, y otros...*







*La comitiva, después de recorrer toda la calle Mayor, hizo alto al pie del arco situado a la entrada del pueblo,... esbelto y elegante, adornado con gallardetes y banderolas, y en el cual se podía leer:* ***Probinziako Diputazio argiya. Ernani-ko erri ezagugarri ta leyal ontara. Ongi betorkigu.***

Allí se espero *la llegada de los representantes de la Diputación,* con su presidente, D. Joaquín Carrión, a la cabeza. Llegaron a las **cinco de la tarde.**

Acompañaba a dichos señores la representación del Consistorio de Juegos Florales: su presidente D. Alfredo Laffitte, el secretario D. Toribio Alzaga y los Sres. D. Miguel Salaverria y D. José Zapirain. Fueron recibidos *solemnemente...* a los acordes del *Gernikako Arbola,* ejecutado por la Banda de música y cantado por niñas y niños de las escuelas municipales.

Después de los saludos de rigor, la comitiva, precedida de la Banda municipal, los *makilldantzaris,* dulzaineros y tamborileros, se dirigió al ayuntamiento. A su llegada, en el tablado de la Plaza Mayor, niñas y niños de las escuelas públicas, acompañados por la Banda de música, cantaron el *Ongui-etorri.*

Tras un breve descanso en la Casa Consistorial, la comitiva se dirigió al ferial donde ya se celebraba el concurso; *se encontraba concurridísimo ya que se había permitido la entrada al público. Todos se hacían lenguas de lo magnifico de la instalación,* en la que había colaborado A. Cortazar, arquitecto autor del ensanche de la capital donostiarra, *y de los ejemplares presentados.*

A las ***seis y media,*** en la Iglesia parroquial, con asistencia de las autoridades del Ayuntamiento y Diputación en corporación, y gran afluencia de público, el Orfeón Donostiarra cantó la *Solemnisima* ***SALVE*** (del maestro Eslava) a la que siguió el ***HIMNO A LA VIRGEN***, letra del vicario de Hernani D. Alfonso



María de Zabala, y música del organista Sr. Manuel Cendoya.

*El templo se hallaba profusa y artísticamente iluminado... ofreciendo un aspecto soberbio,...*

A la salida, los asistentes a los actos religiosos se encontraron el pueblo *espléndidamente iluminado:* en el Paseo de los Tilos lucía una magnífica iluminación eléctrica, las calles principales de la villa se hallaban iluminadas con faroles a la *veneciana.* Especial mención mereció la iluminación del ayuntamiento, obra de los *Sres. Ubarrechena Hermanos.*

*El aspecto era fantástico,... también la animación en calles y plazas.*

A las ***ocho y media***, **BAILABLES** con la Banda municipal, el tamboril y los dulzaineros en el **Paseo de los Tilos**, *concurridísimo.* Después, se quemó una vistosa colección de **FUEGOS ARTIFICIALES.**

A la misma hora, a las ***ocho y media***, en el salón de actos del ayuntamiento, *espléndidamente iluminado y decorado*, dio comienzo la ***VELADA LITERARIO-MUSICA*L** organizada por el Consistorio de Juegos Florales Euskaros.

Comenzó el acto con la lectura por el secretario del Consistorio de Juegos Florales, D. Toribio Alzaga, del acta (*en euzkera*) del concurso literario-musical y pictórico celebrado.

Acto seguido, D. Alfredo Laffitte, presidente del Consistorio de los Juegos Florales, pronunció su discurso de presentación. Hablo de los orígenes e historia de la villa de Hernani; también del carácter de los vascos, de sus condiciones de honradez, nobleza, etc., y de la preponderancia de la mujer en la vida social en Euskal Herria.



Ocupándose de la *literatura euskara*, manifestó que no había existido como tal hasta casi aquellos días, y que los únicos libros antiguos escritos en vascuence no eran sino libros piadosos y tratados de ascética.

Situó el origen de la literatura vasca en el Cancionero Vasco, de Manterola, y que el Consistorio de los Juegos Florales, única corporación literaria del país, no ayudaban sino al surgimiento de escritores y músicos vascos.

Hizo notar que en el campo del *teatro euskaro*, teniendo en cuenta el estrecho marco en el que debía desenvolverse, se habían llevado a cabo cosas notables, principalmente en el genero del drama lírico-histórico: *Chaton Piperri, Anboto, Artzaik mutillak, Iparraguirre y Maitena.*

Esto probaba, terminó diciendo, que *un país que posee un idioma... como el nuestro, es un país llamado a perdurar por los siglos de los siglos.*

A continuación habló el R. P. Mortara: *Idiosincrasia y rasgos salientes del idioma euskaro del pueblo basco, con referencias etimológicas de otros pueblos.*

En su discurso, en *euzkera*, hizo un elogio del idioma vasco, criticó que *muchos vascos lo abandonan y dejan en olvido*, y terminó espetando a todos los *buenos vascongados para que cultiven... el... idioma que poseen* y a que la Diputación provincial hiciera *cuanto sea necesario para la propagación, difusión y enriquecimiento de la noble lengua euskara.*

Seguidamente, el secretario del Consistorio, D. Toribio Alzaga, dio lectura a la poseía *Artzaya, bego mendiyan*, del sacerdote D. Ramón Inzagaray, premiada en el Concurso.

Pasó luego a ocupar el escenario el laureado Orfeón Donostiarra,



que interpretó las obras *Nere aberriko loreak*, de D. Resurrección María de Azkue, reducción de Olaizola, y *Nere andrea*, del maestro Santesteban.

Después, tomó la palabra, *con un discurso en vascuence*, el R. P. Jauregui, que narró la vida y escritos de Cardaveraz, calificándolo como uno de los hijos más notables de Hernani, y recordó aquella su frase: *Dios quiera que el euzkera levante su postrada cabeza.*

Hizo mención de los títulos de las obras que en *euzkera* escribió Cardaveraz; y defendió la lengua vasca... abogando por que *nuestro idioma no sea patrimonio exclusivo de la gente pobre y humilde.*

A continuación D. Juan Ignacio de Uranga leyó la poesía *Eralora edo Uda berriya*, premiada fuera de concurso con mención honorífica.

Ocupó seguidamente la tribuna D. Adrián de Loyarte, quien leyó un extenso y documentado discurso sobre el tema *El genio basco, especialmente en una civilización ultramarina*. En él citó los nombres de todos aquellos vascos ilustres que habían constituido *una pequeña parte de la historia del País Vasco y de sus hijos* en el continente americano: Legazpi, Juan Garay,...

El País Vasco *¿qué no hubiera dado a las ciencias, a las letras, a la política, etc., etc., cuando con sólo unos cuantos hombres que de su suelo salieron a modo de aventureros, dio a la Historia figuras tan colosales? Se nos achaca que no hemos producido más que guerreros y conquistadores; pero hay que hacer ver, que el ambiente en que vivían era de luchas y guerras; y que toda la Península era eminentemente guerrera.*

Se procedió después a la distribución de los premios del certamen literario, musical y artístico, y terminó el encuentro, nueva-



mente, con el Orfeón Donostiarra: *Ausencias y anhelos*, del maestro Busca, y *Gernikako Arbola.*

Así finalizó la primera jornada, propiamente, festiva.

El **DOMINGO DÍA 19**, a las ***cinco y media de la mañana*** arrancó la ***DIANA*** con el tamboril recorriendo la villa y ejecutando alegres pasacalles. Después, a las ***seis y media*** fue el turno de la ***TAMBORRADA***, con el concurso de la Banda municipal.

A las ***nueve*** quedó abierta al público la exposición de animales, objetos y productos presentados al **CONCURSO DE AGRICULTURA Y GANADERÍA**, apertura que se prolongó hasta las cinco de la tarde. Al poco de la apertura fueron dados a conocer los fallos de los jurados de las respectivas secciones.

A las ***nueve y media*** partió de la Casa Consistorial la comitiva oficial, Diputación y Ayuntamiento, para trasladarse a la iglesia parroquial, de donde arrancaría la ***PROCESION*** *a la antigua usanza floral* que recorrió las calles de Urumea, Cinco Cantones y Mayor. Abrían la marcha los makilldantzaris, seguían las imágenes de San Ignacio de Loyola y la Purísima Concepción (escoltadas por miqueletes). A continuación, el Clero, presidido por el ilustrísimo Obispo de la Diócesis, Sr. Cadena y Eleta; seguía la Diputación, presidida por el Sr. Carrión; detrás, el Ayuntamiento de Hernani, presidido por el Alcalde, D. Joaquín Arbelaiz. Cerraban la marcha la Banda municipal, y numerosos fieles.

Regresando a la iglesia dio comienzo la ***MISA MAYOR***, oficiando de pontifical el Reverendísimo e Ilmo. Sr. Obispo de la Diócesis.

El templo, espléndidamente iluminado, se quedó pequeño ante la gran concurrencia de files, hasta el punto de que muchos de



ellos hubieron de seguir la ceremonia desde el atrio del templo.

La oración sagrada corrió a cargo del Doctor D. Jesús María de Echeverría. Este, en su sermón, en euskara, exalto la grandeza del pueblo vasco. Además, dedicó parte de su discurso al estudio de los principios sociales y políticos que habían regido en el País Vasco, e hizo una calurosa apología del régimen foral, *el más sano y el más justo.*

Elogió las costumbres del País Vasco, e hizo un llamamiento para que el *País vasco procure siempre inspirarse en los grandes principios que le engrandecieron y le hicieron descollar en la Historia.*

Durante la celebración, el Orfeón Donostiarra cantó la *Misa* de Gounod; y en el ofertorio, el *Ave Maria*, de Usandizaga, y a la terminación, el *Himno a la Virgen.*

Tras la Misa Mayor, en el tablado de la Plaza Mayor, la comparsa de ***DANTZARI-CHIKIS*** ejecutó diversas danzas y figuras del país.

El ***ORFEÓN DONOSTIARRA***, a mediodía, *cuando un inmenso gentío ocupaba la Plaza Mayor,* cantó el final de la obra *Ausencias y anhelos*, el *Boga-boga* y el *Gernikako Arbola.*

A la ***una de la tarde*** dio comienzo el ***BANQUETE OFICIAL*** en el salón de actos de la Casa Consistorial. Entre los comensales: el presidente de la Diputación D. Joaquín Carrión, el alcalde de Hernani D. Joaquín Arbelaiz,... los diputados provinciales y concejales de Hernani, representantes del Consistorio de Juegos Florales, el vicario de Hernani y el predicador D. Jesús María de Echeverria.

*El tiempo se ha dignado favorecer las Fiestas Euskaras, y si bueno fue el sábado, el* domingo día 19 *fue espléndido, inmejora-*



*ble, día verdaderamente estival. Ello contribuyó no poco a que desde primera hora de la mañana la afluencia de gente forastera fuese en Hernani extraordinaria. Pero cuando la afluencia se convirtió en una verdadera avalancha, fue por la tarde... Automóviles, coches, trenes y tranvías, llegaron en gran número y todos ellos repletos de gente, de todas clases sociales, que vino a dar a Hernani una animación extraordinaria, inusitada.*

A las ***dos de la tarde***, una vez terminado el banquete, se celebró en la Plaza Mayor la entrega de premios a los expositores del concurso de Eibar (anteriores fiestas euskaras).

*... ya apenas era posible dar un paso desde la Plaza Mayor al ferial; y a partir de dicha hora, el bullicio y la animación fueron inmensos en todas partes.*

A las ***tres*** dió comienzo la visita oficial al **CONCURSO DE AGRICULTURA Y GANADERÍA**, procediéndose a la entrega de premios.

A las ***cinco***, desfiló el ganado premiado por la Plaza Mayor.

Durante este acto se registró un accidente que pudo haber tenido graves consecuencias, pero que, providencialmente y para que ninguna nota triste desluciese las Fiestas Euskaras, no las tuvo. Al tablado levantado en la Plaza Mayor muchas y muchos se habían subido para presenciar los festejos, y bien fuera por el exceso de peso o... el tablado se vino abajo. Nada lamentable ocurrió y pronto se restableció la normalidad, y continuó el desfile.

Una vez finalizado, en la misma plaza, dio comienzo el ***AURRESKU DE HONOR.***

A las ***cinco y media***, la Banda municipal ejecutó **BAILABLES** en el kiosko situado en el Paseo de los Tilos.







A las ***seis***, ante numeroso auditorio, dio comienzo en la Plaza Mayor la primera sesión de ***BERTSOLARIS***. En ella, y en las siguientes a celebrar, tomaron parte Pello Errota, de *Cizúrquil*; Txirrita y José Manuel Loquendio, de Hernani, y Bautista Gaztelu, de Usurbil.

*La animación no decayó al entrar la noche, aun cuando fueron muchos los forasteros que emprendieron el regreso a sus respectivas procedencias.*

A las ***ocho y media*** dio comienzo en el Paseo de los Tilos una gran **FIESTA NOCTURNA**, amenizada por los tamborileros y la Banda municipal.

Después, a las ***once***, se procedió a la quema de una colección de ***FUEGOS ARTIFICIALES*** que terminó con un sorprendente ***VOLCÁN*** en el monte Santa Bárbara.

Para final de fiesta, la Banda municipal, en **CORRECALLES**, se dirigió a la Plaza Mayor donde se puso término a los brillantes festejos del día con un alegre ***ARIÑ-ARIÑ***.

El **LUNES, DÍA 20** desde las **siete de la mañana** el tamboril y la Banda municipal recorrieron las calles de la villa... en ***CALEGIRA.***

A las ***diez***, en la Plaza Mayor, ***CONCURSO DE TAMBORILEROS*** organizado por el Consistorio de Juegos Florales. Tomaron parte los tamborileros de Tolosa, Zumarraga y uno de Zumaya, éste fuera de Concurso. *Todos ellos fueron muy celebrados y aplaudidos.*

Terminado el concurso, la multitud se traslado al Paseo de los Tilos, donde... un **CONCIERTO** a cargo de la Banda municipal era a comenzar a las ***once y media***. Bajo la dirección de D.



Estanislao Gorrochategui se interpretó *Bohemios* (Vives), *Sinfonía Vasca* (Mocoroa), *Los Euskaros* (Torre-Múzquiz) y *La Viuda alegre* (Lehar).

*A partir de las dos, al animación fue creciendo... Llegaron muchos forasteros de San Sebastián y de distintos pueblos de la provincia; y calles y plazas, y cafés y sociedades, y demás establecimientos públicos, se vieron concurridísimos.*

Para las ***cuatro de la tarde***, hora en que estaba anunciado el desfile de la comparsa sobre la ***FABRICACIÓN DE LA SIDRA***, en la que en distintas carrozas exponían las diversas operaciones a que da lugar la fabricación del caldo que tanto renombre ha dado Hernani, *la animación era inmensa en la Plaza Mayor.*

Recorrió los *Cinco Cantones* y la calle Mayor hasta la Plaza, regresando por la calle Urumea.

Tomaron parte hombres, mujeres, niños y niñas; todas y todos vestidas y vestidos característicamente.

Rompía la marcha el tamboril y un heraldo a caballo, a los que seguía un grupo de niños simbolizando las diferentes clases de manzana. A continuación, una carroza que representaba la plantación del manzano y su posterior poda. Venía después otra simulando la recogida de la manzana. En la carroza siguiente aparecían los encargados de machacar y prensar la sidra. Seguía una carreta con una cuba y un grupo de jarras. En último lugar aparecía la carroza *más artística y de mejor efecto:* una sidrería. A su puerta, congregados unos cuantos *zizarristas*, entre ellos *Eltzekondo, Txirrita,* José Miguel Oyarzabal *Neguiya,...* entregados de lleno a la tarea de despachar una suculenta merienda y vaciar unas cuantas jarras de *sagardua*.

La Banda municipal amenizaba el festejo.







A continuación, la comparsa de ***MAKILL-DANTZARIS*** ofreció una escogida selección de bailes vascos, en la Plaza Mayor.

A las ***ocho y media***, las ***BANDAS DE MÚSICA Y TAMBORILEROS*** amenizaron el Paseo de los Tilos. Y a la misma hora, en el salón de la Casa Consistorial, se celebró una ***VELADA DRAMÁTICA EUSKARA.***

Se representaron, el estreno de la comedia ***INGELESAREN EURITAKUA***, original de D. José Olaizola; la zarzuela, letra de D. Avelino Barriòla y música de D. José Olaizola ***ZORIGAIZTOKO EGUNA***. En uno de los intermedios se representó un aplaudido monólogo.

Con ella, finalizó el día.

El ***MARTES DÍA 21***, desde las ***siete de la mañana***, nueva **DIANA** y ***KALE-GIRA*** a cargo del tamboril y la Banda municipal.

A las ***diez*** dieron comienzo en los locales de las Escuelas Viteri los **EJERCICIOS DE LECTURA Y ESCRITURA EN VASCUENCE**... *sin duda,... uno de los números más atrayentes de todos los que componían el programa de las Fiestas Euskaras*. En ellos tomaron parte hasta quince niñas y/o niños, todas y todos obsequiados con regalos; los premiados: Martina Zubillaga y José Tellechea; Carmen Imaz, Leonor Zubillaga, María Iraola, Miguel Toledo y Federico Armendáriz; y Fernanda Alberro, Juanita Landaberea, Eloisa Urnieta, María Navarro, José Luis Miner, José Agustín Esnal y Ramón Zumalacarregui.

A las ***once y media***, **CONCIERTO** en el Paseo de los Tilos, a cargo de la Banda municipal: *Puñao de rosas* (Chapí), *Ecos de Vasconia* (Mocoroa), *Nabucodonosor* (Verdi) y *Navarra* (Brull).

A las ***cuatro de la tarde*** dio comienzo en la Plaza Mayor, con



el concurso de corrikalaris, aurreskularis, irrintzalaris, zulladunas, etc. una típica ***FIESTA EUSKARA***.

Entre los **korrikalaris**, tomaron parte siete concursantes, entre ellos: Julián Gotilla y Juan García, e Ignacio Ibarguren y Tiburcio Loinaz.

Los **aurreskularis** se dividieron en dos grupos, uno de menores y otro de mayores de 16 años. Entre los menores: Leoncio Arbelaiz, Antonio Ubarrechena y Juan Pujana. Entre los mayores: Manuel Chapategui (Zarauz) y José María Lasa (Beasain), Antolin Zubizarreta (Placencia) y Justo Pujana (Hernani), y Alejandro Fernández (Andoain).

Se presentaron dos **irrintzilaris**: José Machain (Usurbil) y el hernaniarra Francisco Michelena. Fuera de concurso: Eduardo Toledo.

**Zulladunas**, fueron tres las que se presentaron: María Lasa, Catalina Larburu y María Irazusta.

*Todos los concursantes,... causaron las delicias de la numerosa concurrencia que se agolpaba en la Plaza Mayor.*

Comenzó inmediatamente después el **AURRESKU INFANTIL**, niñas y niños participantes siguieron las enseñanzas de su maestro Justo Pujana, y fueron una vez terminado, agasajadas y agasajados en la Casa Consistorial con vinos y pastas.

Del aurresku o primera mano, se encargo Leoncio Arbelaiz, y del autzesku o segunda mano, Antonio Ubarrechena. Otros que tomaron parte fueron: Ramón Zumalacarregui, Ignacio Múgica, Joaquín Garmendia y Domingo Orbegozo. Y formaron en la cuerda, Agustín Ubarrechena, Luis Achucarro, Cándido Urdangarin, Isidro Salaverria, Domingo Múgica, Manuel Alberro, Juan Olaizola y Simón Zorazabal. También: María Zubillaga,



Dolores Elizaran, Concepción Alberro, Juana Landaberea, Emma Irazusta, Presentación Gaztaminza, Feliciana Pagola, Fernanda Alberro, Eloisa Urnieta, Ramonita Sarasqueta, Angelita Zarauz e Isidra Zapirain.

A las **seis** comenzó la segunda sesión de **BERTSOLARIS** en la Plaza Mayor. A esta faltó Pello Errota, sustituido por Olegario Garín.

A las ***ocho y media,*** las Bandas de música y tamborileros, alternados con los dulzaineros, todos ellos incansables durante las fiestas, ejecutaron unos **BAILABLES** en el kiosko del Paseo de los Tilos. El paseo se vio concurridísimo.

A la misma hora, segunda y última **VELADA TEATRAL *EUZKERA*** en la Casa Consistorial. Se representaron los sainetes ***MEZA BERRIYA***, original de D. Avelino Barriόla, y ***ATERAKOGERA***, de D. Toribio Alzaga. Finalmente, la segunda representación de la zarzuela ***ZORIGAIZTOKO EGUNA***.

En uno de los intermedios fue interpretado un monólogo.

A las ***once***, la Banda ejecutó el correspondiente **CORRECALLES**, y dirigiéndose a la Plaza Mayor, se dio fin a la fiesta quemando el tradicional ***ZEZEN-ZUSKO***.

El ***DÍA 22*** continuo la fiesta. A las ***nueve y media de la mañana*** se celebró la prueba de **PULTSOLARIS**. Primeramente lucharon Nicolas Otaño e Ignacio Eguibar, ambos de Hernani. Después, Isidoro Olloquiegui *Eltzekondo* se presentó en el tablado y desafió a quien quisiera presentarse para competir con el; nadie lo hizo.

Terminada la prueba de pultsolaris, subieron al tablado los **MAKILLDANTZARIS**, que ejecutaron artísticas danzas.



Después, **MUSICA** por la Banda municipal en el Paseo de los Tilos.

A las ***dos y media de la tarde*** dio comienzo en la falda de Telleri Gaña, el **CONCURSO DE BLANKOLARIS**. Tomaron parte en él 37 tiradores. Destacaron: Juan Zapirain, del caserío Recalde (Astigarraga), Cornelio Arrieta, de Ergobia, y José María Erdocio.

Terminado el concurso de blankolaris, en la Plaza Mayor que s*e hallaba concurridísima: en trenes, tranvías, coches y automóviles, había llegado muchísima gente...* era a celebrarse una **PRUEBA DE CARNEROS**. Dos se presentaron; uno de Usurbil, otro de San Sebastián. Se impuso la provincia.

Acto seguido, los **MAKILLDANTZARIS** bailaron un aurresku. Y a continuación, una tercera (y última) prueba de **BERTSOLARIS**.

Los festejos del día tuvieron digno remate. A las ***nueve***, la comparsa de **DANTZARI-CHIKIS** ejecutó todas las danzas de su repertorio, en número de catorce. Y finalmente, en el Paseo de los Tilos, la Banda de música, los dulzaineros y el tamboril, ejecutaron los últimos **BAILABLES**.






Eta horrela Euskal-Festak
  Egin [ziren]
  Ernani´n

Yayo, ederki
  Eta danaren gogoarekin
  Eta danaren
  Poz-arekin
  Egun nai-garri-oyek

Jendiak izando [zitun] Euskal-Festak
  Goratzeko
  Ernani.

Hernaniko
Udala